

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
ALLANDE SOKARROS

Potto-Ahüzki (Zuberoa)

Artzaintzaren iturrian

Arbaillak dira, aldi berean, alagiak –mendi bazkalekuak–, harkaitz gunea eta baso zabala. Potto eta Ahüzki artean egingo dugun txango honek euskal artzaintzaren iturrietatik batera eramango gaitu.

Oinez abiapuntu izango ditugu Potto-ko alagiak. Potto aurkitzea oso erraza da, hori baita Altzürükütik eta Altzaitik Ahüzkira gora egiten duten bideen topagunea. Bertara iritsi daiteke ere Behorlegi edo Mendibetik etorrira eta

Ahüzkiko ostatu-jatetxetik hiru kilometro inguru behera eginda.

Potton bertan, atzoko eta gaurko artzaintzaren lekukoak topatuko ditugu. Altzürükütik Ahüzkirako bide bazterretik hurbil, partzuarren nahikundez, berreraikitako artzain txabola zaharra daukagu. Halabeharrez, han izan dezakegu aterpe, irekia geratzen baita. Altzairako bide saihe-tsean, aldiz, eraiki zuten ola berria. Itxura berrikoa da, beraz, eta azpimarratzekoa da oraindik ere gazta egiten dutela bertan, uda partean.

Lexarreko lepoa, alemanen amesgaiztoa

Pottoko artzain-txabola berri honen aitzinean pasatuz, Altzairako bidearen gora joanen gara. Bospasei ehun metro egin ondoren, Lexarreko lepora –Arangaitzeko lepoa ere deitzen zaio– helduko gara (832 m). Leku honek Zuberoako historia garaikidearekin zerkusirik badauka, zehazki Bigarren Mundu Gerra-

rekin. Arbailletako oihan zabal eta menperaezinaren gerizpean osatu zen *Altzürükütiko makiako* guduariek lepo honetan zioten oldar egin Ahüzkiko postu militar alemaneko patruilari, 1944ko uztailaren 27an. Biharamunean bertan, aleman soldaduek alde egin zuten Ahüzkitik.

Gertakari aintzatsu hura gogoan, bidea utzi eta, pagoen artean sartuz, mendebaldera igotzen hasiko gara. Aski laster, pagadiari bizkar emanda, alagiaren gora jarraituko dugu Lexarrea mendixka belartsuaren gailurrera (992 m) iristearren. Apurtxo bat urrunago, 1.026 metroko altuera duen tontorraren axolbean, Habiaga artzain-ola izan zenaren hondakinak topatuko ditugu. Hegiaren hariari jarraituz aurrera egingo dugu, egundoko ikusmen ederra gozatuz, Arbaillen mendi eta baso aldera, jakina, baita Zuberoako haran, herri, oihan, bizkar, mendi eta bortu aldeetara. Biarnoko baita Bigorrako goi mendiak ere agerian dira, bizkar honetatik.

Une batean, mendi bizkarraren hariari hurbilenik segitzen diogula, behera seko egin beharko dugu 150 metro inguru, Eltzegaineako lepora eraisteko. Garate honetatik 250 metro beherago, Felix Sobieta artzaina eta haren artaldea topa ditzakegu uda partean. Sobietak antzinako artzainek bezala lan egiten du, ola xahar batean,

“Bortüan Ahüzki, hur hunak osoki...”. Kantako iturri entzutetsua Ahüzkiko ostatutik 200 metro gorago kokatua da, Bohokorteako hegoaldeko mazelan.





Ahüzkiko jatetxetik ageri dira, hurrenez hurren, Zuhurre eta Marüleko oihanak. Eskuineko urrunean, Orhi mendia.

eta bere gaztak oso ospe ona du. Berari bisita egin daiteke ere Pottoko bide gurutzunetik 600 metro gorago abiatzen den bide harrizkatutik autoz txabolaraino iritsita.

“Bortüan Ahüzkiko, hur hunak osoki”

Geure txango honetan, Eltzegaineako lepotik apurtxo bat gora eginda mendebalderantz mendi bizkarrari eutsiko diogu. Lomendi gailurrera (1.012 m) heldu orduko, Ahüzkiko ostatu-jatetxea eta Bohokortea (1.214 m) mendi zabalarekin pare-parean izango ditugu. Ibarbürüko lepoan (966 m), Pottotik alde batetik eta Behorlegi zein Mendi-betik bestetik datorren bidearekin egingo dugu topo. Ostatu-jatetxearen saihetsetik igaro ondoren, bide harrizkatuari jarraituz edo malda belartsutik zut igota, Ahüzkiko iturri ospetsura helduko gara. Ostatu-jatetxetik 200 metro goraxeago den iturri honetan

egarria ase eta gero, garaia izango da *Bortüan Ahüzkiko, hur hunak osoki (...)* kantu guztiz ezaguna abesteko.

Atseden hartu eta bazter miresgarriaz begiak bazkatu ondoren, bekatu mortala legoke Bohokortea gailurrera ez igotzea. Gain honetatik zehaztu ezinezko bista bada, Bigorra, Biarno eta Zuberoako mendialdetatik Baxenabarra eta Lapurdirainoko bazterretaraino. Bohokorteko gain lautada zabaletik ere, oso hurbil ikusgai izango dugu –ipar ekialdean–, bere 1.286 metroekin, Arbailetako gailurra den eta inor gutxik ezagutzen duen Ihatia mendia.

Pottora itzultzeko aukera asko

Bohokortea gaineratik Pottoraino itzultzeko aukera asko daude. Mendiaren bidea aurkitzen dakitenek, iparralderako maldan behera eraitsi daitezke Lexarreateko artzain-oletara, han-

dik ekialderat jo Nabolegiko txabolaraino, Olazezarreko hegitik ibilita Hegillorreko olaraino joan eta handik hegitik hegi Potto gainaldera heldu. Buelta handi honen orde, laburrago egin daiteke Bohokorteko ekialde maldatik Ilhasterriko lepora eraitsi (1.109 m), bide harrizkatua zeharkatu eta Ilhasterria gainera igo (1.158 m), hegitik hegi lauan ibilita eta behera eginda Hegillorreko artzain-olaraino joan eta handik lehen aipatutako ibilbideari eutsi.

Errazena aukeratu nahi izango dutenek, Ahüzkiko ostatu-jatetxera eraitsiko dira eta handik, artzainen bide zaharretik, haranaren barrena behera egingo dute Hegillorreko txabolarako bide harrizkatu abiagunera. Han, Ahüzkiko bide nagusiaren eskuin aldetik ageri-agerian den xenda zabalean ibilita Pottora goxogoxo iritsiko dira. ■



Ondarre baserria



20214 Segura (Gipuzkoa)
Tel.: 943 801684
e-posta: ondarre@nispavista.com
www.acvmmultimedia.com/ondarre